



BATXILERGOKO PROBA LIBREEI BURUZKO

HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN JARRAIBIDEAK

Otsailaren 3ko 23/2009 Dekretuak, Batxilergoko curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoak jartzekoak, laugarren xedapen gehigarrian arautzen du probak antolatuko direla aldiro, 20 urtetik gorakoek Batxilergoko titulua zuzenean lortzeko aukera izan dezaten.

Proba horiek EAEn deitzen ez diren bitartean, Batxilergoko ikastetxe publikoek ikasleen matrikulak onar ditzakete, nahiz eta Batxilergoko titulua eskuratzeko irakasgai batzuk gainditu gabeak izan, baldin eta ez badaude Batxilergoko beste erregimenen batean matrikulatuta.

- **Izena emateko epea** ikasturte bakoitzeko apirilaren 30ean amaituko da.
- **Edukiak:** *Otsailaren 3ko 23/2009 Dekretuak, Batxilergoko curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoak jartzekoak (2009-02-27ko EHAA) arautzen ditu ikasgai komunak eta modalitateko irakasgaiak. 2010eko uztailaren 26ko Aginduak, Batxilergoko aukerako irakasgaiak arautzekoak, (irailaren 10eko EHAA) arautzen ditu aukerako irakasgaiak.*
- **Matrikula egiteko lekua:** Aztertu nahi den Batxilergoko modalitatea irakasten duen edozein ikastetxetan egin daiteke.
- **Dokumentazioa:** Ikastetxeetako idazkaritzetan emango da informazioa.
- **Nahitaezko baldintzak:**
 - 1.- 20 urte betetzea proba egiten den urteko abenduaren 31n baino lehen.
 - 2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo titulazio horren baliokidea den titulu bat izatea.
 - 3.- Euskal Autonomi Erkidegoan erroldaturik egon beharko da.
- **Irakasgaiak:** Irakasgaietarako matrikulak egingo dira, eta ez dago irakasgai-mugarik. Irakasgaiak ematen dituzten irakasleek eman dezakete proba ikastetxean egiteko moduari buruzko informazioa.
- **Azterketak egiteko egunak:** Matrikula egin dueneko ikastetxeak jakinaraziko dio ikasleari zer egunetan egingo diren azterketak. Ikasleak adierazten badu graduko ikasketak egiteko probetara aurkezteko asmoa duela, maiatzaren 30a izango da azterketak egiteko azken eguna.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko abenduaren 14an

María Antonia Ozcáriz Rubio
Hezkuntza Sailburuordea